

UDABERRIKO 1. ARGAZKI-RALLYA

ARROA-BEHEAN, 2021eko MAIATZA

EZKAIZTO AUIZO ELIKARTEAK ANTOLATUA



GINARRI OROKORRAK

1. Argazki-rallya 2021eko **maiatzaren 29tik 30era** izango da.
2. Argazkiak bidaltzeko azken eguna ekainaren 2a izango da, 23:59ean.
3. Gaia: **“ARROAKO NIRE LEKU GUSTUKOENA”**.
4. Argazkiak telefono mugikorarekin, tabletarekin, edo argazki kamerarekin egin daitezke.
5. Bestelako argazki tresnak erabili daitezke: objetiboak, tripodea, lenteak, eta abar.
6. Kamerak (mugikorra, tableta, ...) data zuzena izan behar du. Rallytik kanpoko data daukaten argazkiak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

7. Irudiak egileak eginak izan behar dute oso-osorik, eta argitaratu gabeak izan behar dute..
8. Argazkiak ezin daitezke aldatu elementuak aldatuz. Zuri-beltzera eta/edo oinarritzko ukituak bakarrik: kontraste, distira, enkuadratzeko moztea, argazkia zuzen jartzea.
9. Argazkietan parte-hartzaile ez den norbait agertzen bada, idatzizko baimena aurkeztu beharko da (Irudi-eskubideak).

PARTE-HARTZAILEAK

1. Arroa Beheko biztanle guztiek parte hartu dezakete.
2. Bi kategoria ezarri dira:
 - a. 16 urte bitartekoak.
 - b. 16 urtetik gorakoak.

NOLA ENTREGATU ARGAZKIAK

1. Argazkiak posta elektronikoz bidali beharko dira, helbide hauetara: **arroako.argazkirally@gmail.com**.
2. Posta elektronikoaren gaia: “ARROABEAKO UDABERRIKO 1. ARGAZKI-RALLYA”
3. Argazkiak ondo jasotzeko, parte-hartzaile bakoitzak bere argazkiekin posta elektroniko bat bidali beharko da.
4. Parte-hartzaile bakoitzak gehien-gehienez 2 argazki bidaliko ditut.
5. Horrela izendatu beharko dira argazkiak: IZENA-ABIZENAK-ZENBAKIA. Adibide: “Fulanito-Abizen1Abizen2-01.jpg” eta “Fulanito-Abizen1Abizen2-02.jpg”.
6. Argazkien formatua JPG izango da.
7. Posta elektronikoan jarri informazio hau:
 - a. Izen eta bi abizen.
 - b. Adina.
 - c. Argazkian agertzen den lekua: kontatu zein toki den eta non dagoen. Nahi baduzu, azaldu zergatik aukeratu duzun leku hori.

SARIAK

1. 16 urte bitartekoen kategoria:
 - 1. Saria: Diploma + Usb
 - 2. Saria: Diploma + Usb
 - 3. Saria: Diploma + Usb
2. 16 urtetik gorako kategoria:
 - 1. Saria: Diploma + 75 €-ko bonua Arroabeako dendetan gastatzeko (*).
 - 2. Saria: Diploma +55 €-ko bonua Arroabeako dendetan gastatzeko (*).
 - 3. Saria: Diploma +35 €-ko bonua Arroabeako dendetan gastatzeko (*).
3. Erakusketa: rallyan parte hartu duten argazki guztiekin erakusketa txiki bat egingo dugu ekainaren 23tik 30era.

(*) "Txomin" taberna, "Lourdesenea" taberna, "Ainhara" ileapaindegia, "Txara Kooperatiba" jangarrien denda.

EPAIMAHAI

1. Zestoako hiru lagunek osatuko dute.
2. Epaimahaiko kideak ezingo dute rallyan parte hartu.
3. Erabakia ekainaren 9a egingo da publiko.
4. Sari-banaketa: ekainaren 11a egingo da.

OHARRAK:

- Parte-hartzaileen erantzukizuna da hirugarrenen eskubiderik ez izatea aurkeztutako lanen gainean, eta irudi eskubideengatik egon daitekeen edozein erreklamazio haien ardura izango da. Parte-hartzaileek baimena ematen diete lehiaketaren antolatzaileei bidalitako lanak erreproduzitu eta erakusketan ipintzeko, betiere egilearen izenarekin batera.

- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauetan ezarritako guztia onartzea dakar.